

Pasaiaiko Udaleko LAB

HONDAKIN BILTZAILEEN LANPOSTU ETA BESTE BATZUEN ETORKIZUNA eta UDAL GOBERNU BERRIAREN SOLDATEN ETA LIBERATUEN IGOERAK

Hasteko, udal gobernuko kide berriak Langileen Batzordeko ordezkari eta atez ateko langileekin bildu ziren, eta gauza jakina denez ez gara luzatuko, denok dakigu **PSE eta PNVren** erabakia zein den.

Hondakin bilketa San Markoko Mankomunitatearen esku utzi nahi dute, FCCren esku, hain zuzen ere. **PRIBATIZATU ZERBITZU PUBLIKO BAT, alegia.**

PSEren hauteskunde-programak honela zioen: "Atez ateko sistema kentzea izango da nire lehendabiziko erabakia alkate ateratzen banaiz".

Orain aipatu dute langile hauen etorkizunaren harira proposamen partzial bat dutela (eta ahotsez), baina jakin badakite beste alternatiba batzuk badaudela.

Adibidez: **Hondakin bilketa Udalak egitea, dauden lanpostuei eutsiz eta Zerbitzu Saila sendotzea.**

Hasieran bere asmoa 13 langile kaleratzea bazen, alde batetik Zerbitzu Sailan dauden beharrak eta beste aldetik egindako mobilizazioei esker, hainbat langile eutsiko diote bere lanpostuei. Beste langileen etorkizuna alkatearen "gestio eta borondate esku daude".

Hasieratik ez dugu onartu langileak kaleratzea eta ezin dugu onartu Pasaiaiko Udalak enplegua suntsitzea. Gainera, udal gobernu osatzean ez al zuten ba esan PSEk eta PNV-EAJk enplegua sustatuko zutela? **NOLA? HITZ HUTSAK BESTERIK EZ ZIREN, ETA HEMEN DAGO LEHEN ADIBIDEA.**

Bestalde, eta beti udal teknikarien iritzien arabera, Pasaiaiko herriari merkeago aterako litzaioke Udalak egitea hondakin bilketa. **Era batera edo bestera eginda.** Gainera edukiontzi sistemarekin Mankomunitateak (FCCren bidez) ateratzen duen etekina Pasaiaiko Udalak eskuratuko luke hondakin sailkatuetatik ateratzen den etekin ekonomikoa aprobetxatuz.

Udal teknikarien iritziei gehitzen badiogu uztailan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epai baten ondorio ekonomikoa (93000€ Mankomunitatea bueltatu beharko dizkio udalari). Orotara 75000€ euro inguru merkeago aterako litzaioke Udalari bilketa egitea San Markoseko mankomunitateari pasatzea baino.

...zertara ari dira jolasten Gobernu taldekoak?

Erabaki hau gauzatzeak esan nahiko luke argi eta garbi Pasaiaiko herritarren ongizatea eta interesak eta langileen etorkizuna ez zaizkiela axola. Temati daude FCCri bilketa emateko orduan. Eta aitzakia da atez ateko sistema kentzearena, baina hondakinak biltzeko sistema aldatuta ere, egon badago alternatiba.

Erabaki honen erantzule bakarra ez da PSE; izan ere PNVk ere sinatu du bien arteko akordioa. PSE-PNVren itunaren ondoren langile hauen egoera kinka larrian dago.

Hau al da “pertsonak” eta enplegua helburutzat hartzea? Hau al da zerbitzu publikoaren defentsa egitea?

Beste gai batera etorriz, uztaileko udalbatzarrean, udal gobernu berriak beraien soldaten igoera eta gobernuko liberatuen igoera onartu zuen. Hau da gutxi gorabehera onartu dutena:

- **Alkatearen soldata: %35ko igoera.**

- **Udal gobernuko zinegotzien soldata ere igotzea (%10a). Eta gobernuko 10 kideetatik 7 soldatapean ipintzea.**

Horrek esan nahi du udal gobernu berriak urtero gutxi gorabehera **100.000 mila euro gehiago gastatuko duela “politikarien soldatetan”**. Legealdian **400.000 mila euro**.

Erabaki honen aurrean Pasaia Udaleko LABek gogor eta ozenki salatu nahi du hartutako erabaki hau.

Udal funtzionarioek urte ugari daramate beraien soldatak “izoztuak” dituztela, eta horretarako aitzakia izan da Udalaren egoera ekonomiko kaxkarra. Udaleko hainbat zerbitzu publiko ere eskasak dira, eta hauek hobetu ordez, betiko erantzunarekin egiten dugu topo: egoera ekonomikoa.

Pasaia herriari dagokionez ere, biziberritzeko hamaika ekimen geldirik ditu, eta berriro ere aitzakia diru falta da. Langabezia tasa udalerrri honetan izugarria da eta plan zehatzak martxan jartzeko zailtasunak daude. Berriz ere aitzakia dirua da.... Eta honi guztiari ezikusi eginda, bizkarra emanda, zer egingo eta gobernatzen hasi aurretik beraien soldatak igo, gainera ez nolana hiko igoera baizik eta ezin onartzeko igoera.

Nola igo litezke soldatak ezer frogatu aurretik? Nola egon liteke horrenbeste liberatu aurreko legealdiko eredia kontuan hartu gabe? **Politikarientzat dirua badago, baina langileentzat eta herritarrentzat ez?** Hau al da PSE eta PNV-EAJren eredia? Hau al da beraien aldaketarako gobernua esaten diotena? Aurreko legealdian etengabe kritikatu izan zuten hartutako erabakiak ez zirela beste alderdiekin kontrastatzen... eta orain? Norekin partekatu dute hartutako erabaki hau? Sindikatuekin? EZ. Herritarrekin? Ezta ere.

Beraz, argi dago gobernu honen irizpide nagusiek langileen eta herritarren kontra jotzen dutela. Hondakin sistema aitzakia izan da beraien BETIKO politikak martxan jartzeko. Iruzur egin digute langileoi eta IRUZURRA EGIN DIETE HERRITARREI.

ASKI DA!!

Legealdi berri hau hasteko unean errealitatea zein dugun ikusirik, Pasaia Udaleko LAB sindikatuak ekimen ezberdinak martxan jarriko ditu. Batetik, gure konpromisoa adierazi nahi dugu hondakin-biltzaileen etorkizuna bestelakoa izan dadin. Alternatiba badagoela aldarrikatuz gure ekintza sindikala indartuko dugu langileen batzordean eta langileen artean. Ez dugu onartzen hartutako bidea eta are gutxiago langileen zein herritarren kontura egiten baldin bada. Horretarako beharko diren aliantzak bilatuko ditugu udalean eta herritarren artean alternatiba posible dela azaltzeko, eta bide batez, gobernu honen bidegabekeria salatzen.

Azkenik, gure prestutasuna azaltzen dugu jendaurrean pribatizazioaren kontra, enplegu suntsiketaren aurka edota “politikarien” soldaten igoeraren kontrako ekimenak era amankomunean antolatzen.

Pasaia Udala herriarena da, zerbitzu publiko indartsuak dituen udalerrri bat, eta informazio gardena maite duena.